

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4091

EBAZPENA, 2022ko irailaren 13koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2022ko ekainaren 23ko Ebazpena, 2030 Agenda Bonuen Programaren 2022rako dirulaguntzen deialdia ebazten duena.

Otsailaren 15eko 23/2022 Dekretuaren bitartez, 2030 Agendaren arloko proiektuetarako dirulaguntzak arautu ziren, EAEko elkarten sareko erakundeek garatutako dibulgazio-, hezkuntza-, prestakuntza- edo partaidetza-ekintzak sustatzeko eta ugaritzeko laguntza gehigarri gisa, 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak direla eta.

2022ko otsailaren 23ko Ebazpenaren bidez, 2022rako laguntzen deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoan diruz lagun daitekeen proiekturen bat garatzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat, otsailaren 15eko 23/2022 Dekretuaren 3. artikulua arabera.

2022ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez, 2030erako Agenda Bonu Programaren 2022rako dirulaguntzen deialdia ebatzi zen.

Barakaldo-Gurutzeta Salesiano San Juan Bosco Ikastetxeak «Los ODS en Salesianos Cruces» proiekturako eta Zabalburu Ikastetxeak «ODS con Visual Thinking» proiekturako aurkeztutako errekurtsioak ikusita, Balorazio Batzordeak aurkeztutako errekurtsioen beste azterketa bat egin du. Berrikuspenetik ondorioztatzen da akats bat dagoela bi ikastetxeek aurkeztutako proiektuen balorazioan. Horregatik, Balorazio Batzordeak esleipen-proposamen berri bat aurkeztu du, eta horrek berekin dakar Gizarte Trantsizioko eta 2030 Agendarako idazkari nagusiaren 2022ko ekainaren 24ko Ebazpena aldatzea.

Ondorioz, Balorazio Batzordeak egindako proposamen berria ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bi ikastetxeek 2022ko deialdian aurkeztutako eskabideak onartzea. 23/2022 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurkeztutako proiektuak baloratu dira, eta biek 30 puntutik gorako puntuazioa lortu dute, artikulua berean xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.– 2022ko ekainaren 23ko Ebazpenaren I. eranskina (Erakunde esleipendunak) eta II. eranskina (Ukatutako eskabideak) aldatzea, era honetan:

I. eranskinean, honako erakunde esleipendun hauek gehitzen dira:

Zk.	Erakundea	Finantzatutako proiektua	Emandako dirulaguntza
029	Colegio San Juan Bosco de Barakaldo – Cruces Salesianos Prov San Francisco Javier	Los ODS en salesianos cruces	5.000,00
043	Colegio Zabalburu ikastetxea S. Coop.	ODS con visual thinking	2.953,13

II. eranskinean ukatutako eskabide hauek ezabatzen dira:

Zk.	Erakundea	Proiektua	Ukatzeko arrazoia
029	Colegio San Juan Bosco de Barakaldo Cruces Salesianos prov San Francisco Javier	Los ODS en Salesianos Cruces	(1)
043	Colegio Zabalburu Ikastetxea S. Coop.	ODS con Visual Thinking	(1)

(1) Jarduera hori ez da sartzen dirulaguntzen eremuan, ez duelako betetzen 23/2022 Dekretuaren 4.1 artikulua, proiektuen betekizunei buruzkoa.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion salan, 2 hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 13a.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusia,
JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ ERDOCIA.